

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

**Aralar taldeko bozeramaile Aintzane Ezenarro Egurbidek**, indarrean den Erregelamenduaren babesean, "Azken atxilotuek egindako sexu erasoen eta tratu txarren salaketen inguruan" hurrengo **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** aurkezten du, **osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin**:

### **ZIOA**

Ustez ETako kide izateagatik inkomunikatutako atxilotutako lau pertsonak tratu txarrak eta eraso sexualak salatu dituzte. Salaketa horiek ezinbestean eta behar duten berme guztiekin ikertuak izan behar dira.

2010eko abenduaren 1ean gobernuak Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zuen "Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketa eta beste sufrimendu bidegabeak jasan dituzten biktimei buruzko" txostenean argi adierazten da espainiar estatuan ez direla behar bezala ikertuak izan tortura salaketak; jokabide hori zuzendu beharreko jokabide gisa aurkezten zen eta hala onartu genuen, gainera, Eusko Legebiltzarrean ordezkaturako alderdi politiko guztiek.

Bestalde, martxoaren 8an Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainia zigortu zuen Aritz Beristain Ukarrik salatutako torturak behar bezala ez ikertzeagatik. Horregatik guztiagatik, Beatriz Etxebarriak salatutako sexu eraso eta gainontzeko atxilotuek salatutako mehatxu eta tratu txarrak ikertzea ezinbestekoa da, are gehiago, iraganean izandako hutsegiteak gainditu nahi baldin badira eta demokrazian eta giza eskubideen bermean sakondu.

Hori dela eta, hurrengo legez besteko proposamena aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin:

### **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA**

Eusko Legebiltzarrak Fiskaltzari eskatzen dio, iker ditzala Beatriz Etxebarriak egin duen eraso sexualen salaketa eta gainontzeko atxilotuek egin dituzten tratu txar eta mehatxuen salaketak.

**Gasteiz, 2011ko martxoaren 8an**

**Aintzane Ezenarro Egurbide**

**Aralar taldeko bozeramailea**